


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Gainbehera dator dena

Chinua Achebe

ALBERDANIA / ELKAR

230 orrialde

12,75 euro

Kolonialismoaren ondorio zitalak

Alberto Martínez de la Cuadrak euskaratu du *Gainbehera dator dena*, Chinua Achebe (Nigeria, 1930) idazlearen lanik esanguratsuena. 1958an argitaratu zen aurreneko aldiz, ingelesez idatzia. Nigeriak independentzia lortu baino bi urte lehenago argitaratu zelako metropoliaren hizkuntzan idatzi zuen Achebek, mendebaldarrek ere ulertu ahal izateko. Liburua 1860tik 1890era bitarteko urteetan kokaturik dago; Nigeriako gobernu kolonialaren eta biztanle iboen kultura tradizionalen talka deskribatzen du eleberriak. Gainera, europarrek afrikarrei buruz egiko erretratu estereotipatua puskatzen du, erakutsiz ibo kulturak europarrekin tupust egin baino lehen zituen gizarte erakunde konplexuak. ■

Haurrekin batera egiteko 38 zeregin

Aste bukaera bat, edozein festa egun, zubiak edo Aste Santuko oporrak iristen dira eta guraso askoren kezka izan ohi da: zer egin genezake haurrek ondo pasatzeko, etxetik asko urrutiratu gabe? Sua argitaletxeak plazaratu duen Mikel Tellagorriren *Guía para realizar planes con niños los días de fiesta* izan daiteke irtenbidea. Izan ere, gida honek Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoan egiteko moduko 38 plan eskaintzen ditu: gaztelu edota haitzulo miresgarriak barrutik ezagutzeko aukerak; zaldian, trenean, irristailuan edo itsasontzian ibiltzekoak; neska-mutikoen zinean edo telebistan baino ikusi ez dituzten animaliak hurbil ikustekoak; lorategi liluragarrietan galtzekoak; altxorak aurkitzekoak... Edozein adinetakoentzat dira aukerak. ■




Planes con niños los días de fiesta

Mikel Tellagorri

SUA

220 orrialde

15 euro



Angkoreko misterioa

Bjorn Sortland

IBAIZABAL

128 orrialde

9,50 euro

Kanbodiako artelanak lapurtu nahi zituztenen trikimailua

Aitor Aranek euskaratutako *Angkoreko misterioa*aren protagonista hamaika urteko mutiko norvegiarra da. Bere familiarekin Kanbodiara joan da oporretan. Khemer inperioko hiriburura iritsitakoan ordea, ezuste latzak izango dituzte. Herrialdeko sugerik arriskutsuena "oparituko" diete, eta handik gutxira aita pozoitu egingo dute. Badirudi norbaitek nahi duela Daviden familiak handik lehenbailehen ospa egitea. Nork baina? Ez dakite Daviden ama arte-historialaria dela, eta Angkoreko monumentuak ikusten gozatu egiten duela. Hain zuzen halako baten aurrean atxilotuko du poliziak, lapurreta egin duela salatuz. Eta monumentua "garbitzen" ari omen diren "aditu" norvegiarrek oso pozik dirudite horrekin. ■

Zientziaren dibulgazioaz

Jakin aldizkariaren 166. zenbakian zientziaren dibulgazioa dute gai nagusitzat. Zientzia Irakurle Orentzat liburu-bildumak 2007ko ekainaren 14an antolatutako ZIOfestan eman ziren hiru hitzaldi bildu dituzte. Joseba Jau-regi psikiatrak arimaren bilaketaren historiaz dihardu aurrenekoan; Ana Zubiaga genetistak geneei eta genomari buruz dakigunaz eta ez dakigunaz hitz egin du; eta Javier Duoandikoetxea matematikaria *Zertarako matematika?* galderari erantzuna ematen saiatu da. Bestalde, Zientzia Irakurle Orentzat bildumaren zuzendariak, Juan Garzia eta Itziar Lakak, liburu sail horren zio nagusia zein den adierazi dute; hau da, zientziak diharduen literatura euskal irakurleari hurbiltzea, zientziaren dibulgazioaren alorrean mundu mailan dagoeneko arrakastatsuak izan diren hainbat idazki euskarara ekartzea. ■



Jakin

Batzen artean

JAKIN

120 orrialde

10,50 euro



Concierto para una violinista muerta

Antonio Alvarez Gil

KUTXA

168 orrialde

10 euro

2007ko Irun Hiria nobela saria

1947an Melena del Sur-en (La Habana) jaiotako Antonio Alvarez Gilen *Concierto para una violinista muerta* eleberriak irabazi zuen iaz Irun Hiria saria. Kubako Orkestra Sinfoniko Nazionaleko biolin-jolea du narratzaile. 2000 urtean, bere bizitzan aurreneko aldiz Txai-kovskiren Biolin kontzertuko tarte bat bakar-kajotzeko aukera izan zuenean hasi zitzaizkion nobelan kontatzen dituen komerriak. Oso ondo jo zuen, entzuleak zeharo hunkitzea lortuz. Kontzertua bukatu zenean, emakume erakargarri bat gerturatu zitzaion, eta gutun bat eman zion. Ireki zuenean, mezu arrunt txundigarriarekin batera 1.000 dolarreko billetea aurkitu zuen. Zer egin, diru harekin guztiarekin? ■

Korrikalari izatea gustatzen zitzaion hipopotamoa

Erbia eta tximinoa adarrean kulunka zeuden arratsalde sargoritsuan, hara non ikusi zuten hipopotamoa oihanean korrika. Ea zertan zebilen galdetu ziotenean, korrikalaririk onena izateko entrenatzen ari zela erantzun zien honek. Horretarako lodiegia eta astunegia zela esan ziotenean, arrazoi eman zien. Beste eragozpen batzuk aitatu eta berdin. Ea zergatik ari zen korrika orduan. Honela erantzun zien hipopotamoak: hori delako munduan gehien atsegin dudana. Eta korrika joan zen. ■

Sasoi onean

Victoria Pérez
Escrivá, Claudia
Ranucci

IBAIZABAL

34 orrialde / 6,88 euro



IÑAKI MARTINEZ ALDANONDO

«Beti gustatu izan zait Luisen istorioak eta kontuak entzutea»

Zerk bultza zintuen liburu hau idaztera?

Hainbat urte badira Luis ezagutzen dudala. Eta egia esan behar badut, beti gustatu izan zait bere istorioak eta kontuak entzutea. Kontu kontari ari direnean bereganatzen zaituzten hizlari arin eta bizkorak ekartzen dizkit gogora. Entzulearen gogoia bahitzeko gai direnak, beste garai batzuetara, bertako kulturaren berri emateko elezaharrak eta pasadizoak erabiltzen dituzten lekutara eramanez. Beharbada lilura horretatik sortu zitzaidan gure aurrekoen eskarmentutik ikasi eta haien lekukotza sakon ezagutzeko beharra.

Eta zein da *Memorias de un editor de provincias*-en ekarpen nagusia?

Entzute aitortua duen euskal argitaratzailea, idazlea eta historialaria da Luis. Liburuan zabalgaratu duen lekukotasuna, gure oraintsuko historiaren isla zehatza da. Lan honetan, bere ikuspegiaren bidez Euskadiko kultur idatzia ezagutzera eman nahi nuen, irakurleak “desagertzeko zorian dagoen artisau lanbide” batera gerturatu, eta diktaduraren amaiera eta demokraziaren hasierako unea, gizarte mailan eta politikoki irakiten zegoen sormen izugarri aberatseko une historiko hori jendarteratu.

Lortu duzu helburua?

Baietz uste dut. Nolanahi ere, Luis eta Yolanda Apraizek egindakoaren bitartez, kultur munduan saiatu diren emakume eta gizon zintzoen lana eskertu nahi nuke; independente izanik euskal kultura hedatzeko eta aberasteko asmoz ahalegindu diren pertsonak baitira, nire ustez, askatasunaren aldeko borrokalariak benetakoenak.



egileari galdezka

Luis Maria Jimenez de Aberasturiren oroimenak

Iñaki Martínez Aldanondok osatu du *Memorias de un editor de provincias*.

Testimonio de un cam-

bio liburua. Txertoa argitaletxearen sortzaile eta hainbat urtez Gipuzkoako Liburu-saltzaileen Elkartearen lehendakari izandako Luis Maria Jimenez de Aberasturiren hitzetatik jaso ditu haren bizitzako nondik norakoak. Ama Berakoa eta aita Arabako Biloda herrikoa zituen. Arrazoi ezberdinengatik, Donostia bizitzera joatea egokitu zitzaion biei. Aita apaiztegi batean hezitako gizona izaki, seminarioa utzita ere sinesmen hori sutsuki mantendu zuen, baita Donostian ospetsu bilakatuko zen Easo liburudenda ireki eta gero ere. Bost seme-alaben guraso izanik, Luis Maria hautatu zuen bere bidea jarraitzeko. Eta honi, aitaren erabakia onartu beste biderik gelditu ez zitzaion arren, bere benetako asmoen alde borrokatzea egokitu



Memorias

Iñaki Martínez
Aldanondo

TXERTOA

334 orrialde

15 euro

zitzaion. Liburuan, Txertoa argitaletxea martxan jartzeko izan zituen buruhaustekak, Francoren garaiko eta Trantsizioko zentsura arazoak, eta orduan eta geroago liburu-saltzaile zein argitaratzaile gisa egindako ezagupenen berri ematen du. Adibidez, Julio Caro Baroja eta Mark Legassekin edukitako adiskidetasuna, edota Jorge Oteizarekin izandako istiluak. ■